SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO NAFAR LANSARE

I. ERANSKINA

DIRULAGUNTZEI BURUZKO 11/2005 FORU LEGEAREN 13. ETA 15. ARTIKULUETAKO BETEBEHARREN GAINEKO ADIERAZPENA

Izen-deiturak: IFZa/AIZa: .....; honen ordezkaria: .....; IFZa: .....

ADIERAZTEN DUT adierazpen honetan agertzen den informazio guztia benetakoa dela eta oso-osorik eman dudala.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuek xedatzen dutenez, bertan aipatzen diren inguruabarretako batean dauden pertsona edo entitateak ezin izanen dira foru lege horretan araututako dirulaguntzen onuradun izan.

Aipatutako artikulu horretan ezarritakoaren arabera, adierazten dut ordezkatzen dudan entitatea **ez dagoela egoera hauetako batean ere** :

a) Epai irmoan ezarritako kondenaren ondorioz dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko gaitasunaz gabeturik egotea.

b) Konkurtso deklarazioa eskatua izatea, ezein prozeduratan kaudimengabea deklaratua izatea, konkurtsoa deklaratua izatea, kontu-hartze judizialaren menpe egotea eta, Konkurtsoei buruzko Legearen arabera, ezgaitua egotea (konkurtsoa kalifikatzen duen epaian finkatutako ezgaitasun aldian).

c) Administrazioarekin sinatutako kontraturen baten behin betiko suntsiarazpena eragin izana, errudun deklaratua izateagatik.

d) Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileek edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariek indarra duen araudian ezarritako bateraezintasunak izatea.

e) Zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak bete gabe izatea, edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari ordaindu beharreko zorrak itzultzeko betebeharra bete gabe izatea.

f) Egoitza fiskala erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Ebazpen irmo batean ezarritako zehapenaren ondorioz, dirulaguntzak lortzeko gaitasunaz gabeturik ez egotea Dirulaguntzei buruzko Foru Legean, zergei buruzko lege orokorretan edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko legeetan ezarritakoaren arabera. Foru lege horren 9. artikuluko 2. apartatuan aipatutako elkarteak ezin izanen dira onuradun izan haien kideetako edozeinek aurreko debekuetako baten bat badu.

3. Elkartea sartuta egotea martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan ezartzen diren debeku-arrazoietako batean (lege horrek elkartzeko eskubidea arautzen du), edo erregistroan inskribatzeko administrazio prozedura etenik edukitzea, lege-hauste penala egin izanaren arrazoizko zantzuak agertzeagatik, aipatutako lege organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, harik eta ebazpen judizial irmoa ematen den arte.

Halaber, ezin izanen da dirulaguntzen onuradun izan bere edukien artean sexu-harremanetarako kontaktuen iragarkiak edo prostituzio-iragarkiak jasotzen dituen inongo hedabide, eta halako jardueratzat hartuko da beste pertsona batzuekin sexu-harremanak diru truke edukitzea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 15. artikuluak ezartzen ditu emandako dirulaguntzek publizitatean dituzten betebeharrak.

Aipatutako artikuluko 2. puntuaren arabera, aditzera ematen dut dirulaguntzaren xede diren programen, jardueren, inbertsioen eta edozein motatako ekintzen finantzaketaren izaera publikoa zabalduko dudala.

Dirulaguntza arautzeko oinarrietan zehaztuko da nola egin behar den zabalkunde hori.

……(e)n , 20.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n .
(Eskatzailearen sinadura)

(Sinatu eskuz edo ziurtagiri elektronikoarekin. Ez da onartuko sinadurei argazkia egitea edo ebakitzea eta ondoren itsastea)